

Euskal Herriko lehen topaketa feministak egin ziren duela 25 urte

Emakumeak emakumea topatu zuen


1977ko abenduaren 8tik 11ra bitartean, hiru mila andrazko batu ziren Leioako Unibertsitatean Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketetan; mugarri garrantzitsua ezarri zuten gure herriko mugimendu feministan

IDURRE ESKISABEL

Morea da feminismoaren kolorea, eta hain zuzen ere, kolore horrekin jantzi ziren Leioako Unibertsitateko areto nagusiak duela 25 urte. Ez bakarrik Leioako *Aula Magna* eta beste zenbait gela, baizik eta Bilboko gauak ere morez tindatu ziren. Izan ere, Euskal Herriko emakumeek aurreneko aldiz beren arazoez hitz egin eta aterabideak aztertzeke beta hartu zuten Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketen kariaz, eta antolatzaileen aurreikuspen guztiak apurtuz, hiru mila inguru izan ziren batzar hartan parte hartu zuten andrazkoak. «Lehendabiziko ezustekoa hainbeste emakume hurbildu zirela ikustea izan zen. Inola ere ez genuen espero. Deskubrimendu handi bat izan zen eta poz izugarria eman zigun: pentsa, aztertu beharreko ponentzien testuak lehen egunean agortu ziren; nolabait, hainbesteko parte hartzeak gaintu egin gintuen antolatzaileok. Poz horren ondorioz, sekulako giroa izan zen jardunaldietan: jai giroa zen nagusi; gogoratzen dut Bilboko gauak gureak zirela. Parte hartze handi horrek berak adierazi zigun Euskal Herriko emakumeen artean premia itzela zegoela beren arazoez mintzatzeko eta askapen borroka bat aurrera eramateko», azaldu du Ana Ereño orduko mugimendu feministako kide eta Topaketen antolatzaileetako batek.

60ko hamarkadako azken urteak eta 70eko lehendabizikoak garrantzi handikoak izan ziren nazioartean emakumeen askapenerako: teoria feminista indartsu bat sortu zen; patriarkatua eta generoa bezalako kontzeptuak eratu ziren, eta haien analisi zorrotzak egin ziren. Andrazko izateagatik arazo propio eta berezituak zituztela jabetzen hasi ziren emakumeak eta gizonezkoen pareko eskubiak aldarrikatzen.

Hala ere, Euskal Herriko zati batera —frankismoaren mende zeuden Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroara— ahulduta heldu zen mugimendu indartsu haren oihartzun ozena. Francisco Francoren erregimen ultra katoliko eta eskuindar konterbadoreak zorrotz marraztu zuen zein zen andrazkoen lekua (etxea, familia, besteen zaintza), eta, halaber, gogor finkatu zuen gizarte bizitzan bigarren mailako rola zutela —legez, gizonen bai-



mena behar zuten andreek eguneroko bizitzako hamaika gauzatarako: bankuan diru kontua izateko edo atzerrira bidaiatzeko, kasu—.

Baina frankismoaren kontrako borroka gero eta indartsuagoa zen eta erregimena gero eta ahulagoa. Gero eta arrakala gehiago ari zitzaizkion zabalitzen, eta haietatik, haize berriak sartu ziren. «Klandestinitatean bazen ere, gauza garrantzitsuak gertatu ziren urte haietan. 1962an, *Los derechos civiles de las mujeres* (Emakumeen eskubide zibilak) idatzi zuen Lidia Falcon feminista espainiar ezagunak, eta nolabaiteko eztabaida ireki zuen gizartean. 1974an emakume talde txikiak sortu ziren sasia. Talde haien kezka nagusia bizitzaren pertsonalaren azterketa zen, baina patriarkatuaren teoritik abiatuta. 1975a Emakumearen Nazioarteko Urtea izan zen, eta 1977an Espainiako Lehen Jardunaldi Feministak egin ziren Bartzelonan. Ingurumari horretan sortu ziren Euskal Herriko Topaketak. Gertakari horiek guztiak aherentzi egiten dira sarri, baina injustua da. Izan ere, eragin zuzena izan zuten gure herriko feminismoaren sorreran», azaldu du Maria Jose Urruzolak. Hain zuzen ere, 1974an hasi zen Urruzola emakume talde bateko kide izaten, eta, egun, Alderdi Feministako lehendakari da.

«Bizkaiko Emakume Asanblada 1976an eratu zen, eta, gero, Donostian-eta taldeak sortzen hasi ziren. Ipar Euskal Herrian ere bazen emakume talde bat. Beraz, mugimendu feminista hasi berria zen topaketak egin ziren garaian, eta, hain zuzen ere, behar horixe sumatzen zen: borroka feminista bazela adierazteko. Premia hori dago topaketen oinarrian. Han batu ginen emakume gehienak frankismoaren kontrako borrokatik genduz; kontzientzia politikoa hedatuta zegoen, era batera edo bestera. Baina sentitzen genuen emakume izateagatik

ANA EREÑO

«Ezkerreko militante askok burges txikiak ginela esaten ziguten; ez zuten borroka feminista ulertzen»

zapalkuntza berezi baten menpe geundela. Aurkuntza hori egin genuen eta azalarazi nahi genuen», argitu du Arantza Urkaregik. EILAS sindikatuko kide eta Abertzale Sozialistak taldeko Bilboko Udaleko zinegotzi da, egun, Urkaregi, baina orduan, EMK-ko partaide zen eta Bizkaiko Emakume Asanbladan aritzen zen feminista.